

LOE_{ren}

AURREPROIEKTUA



STEE-EILAS HEZKUNTZA LEGE ORGANIKOAREN AURREAN

ILUNTASUNA NAGUSI

Joan den martxoaren 30ean, Maria Jesús San Segundo Hezkuntza ministroak, Kongresuan eztabaidatuko den Hezkuntzaren Lege Organikoaren (LOE gaztelaniaz) aurreproiektua aurkeztu zuen Madrilen. PSOEek Estatuko gobernua bereganatu zuenetik urte bete pasatu den honetan eta hartutako lehen erabakietako batek -PPren LOCE abiatzea galaraztea hain zuzen ere- harrotutako hautsak eta gero, Hezkuntza eta Zientzi Ministerioak aurkeztu duen aurreproiektu honek Estatuko hezkuntza sistemen oinarrizko antolaketaren inguruan zeuden zalantza batzuk argituko ditu.

Elkarrizketa

“Jarrera” berriak Hezkuntza eta Zientzi Ministerioak aurkeztutako agiriaren gainean sei hilabeteko gogoeta eta kontsulta egitea ahalbidetu ditu. LOCEri falta izan zitzaion zerbait da hau, eta irakaskuntzako sektore gehienek bere aurkako jarrera izatearen arrazoietakoa bat. Beste gauza bat da, ea PSOEren jarrera irekia izan den prozesu honetan egin diren ekarpenekiko, zein presioen aurrean makurtu den, eta azken

finean, ea proiektu honek gehiengoaren nahiei erantzuten dien. Esan beharra dago, eztabaidak ez duela apenas eraginik izan ez EAEn, ezta Nafarroan ere. Honen ardura nagusia Administrazioek berek badute ere - horrela, gainera, bere hezkuntza sistemen diagnostikoa egiteko aukera ezin hobea galdu dute-, ezin dugu alde batera utzi eztabaida sustatzeko hezkuntzako agente askok agertu duten interes falta.

Kemenik ez

Hemen sortu da gure lehen dezepzio handia. Badirudi, boterea eskuratu zuenetik beste arlo batzuetan gertatu zaion bezala, PSOEren gobernuak ez duela adorerik hezkuntza politikak behar duen itzulia proposatzeko. Zail egiten zaio erabakiak hartzea eta aurkariekiko ahul ageri da. Jarraikotasunari eusten dio, ia-ia denak pozik izango dituen itzaropenarekin, eta hauteskundeetan agindutakoari muzin egitera heldu da kasik. Esanguratsua da aurreproiektuan Estatuko Eskola Kontseiluak, eskola komunitate guztiko

ordezkari bakarra, egindako ekarpenik ia ez jasotzea, eta bai, ordea, eliza katolikoa edo irakaskuntza pribatuko ugazaberia moduko botere faktikoen eskaera batzuei men egitea. Erabakitzeko gaitasun ezaren beste erakuspen batzuk ere badaude: ikasmaita batzuetan baloreen heziketa ikasgai berri baten bizkar uztea (*Hirigintzarako heziketa*), zehar lerroen trataerari eutsi beharrean; *bero-bero* dauden gaien aipamenik ez egitea, hala nola osagarritzko zerbitzuak, testu-liburuak doan izatea edo eskola-denboraren birrantolaketa.

Erljioari jira eta bira

LOEk ideologiadun eskolaren alde egiten du berriz, Estatuko Eskola Kontseiluaren erabakiaren aurka. Erljio ikasgaia mantendu egiten da, bai kurrikuluan (ikastetxeek derrigor eskaini behar dute), baita eskola orduetan ere eta, gainera, erljio katolikoa besteen aurretik jartzen da. Oraindik argitu barik daude alde malkorrak:

ez dakigu notarako balioko dion aukeratzen duenari, beka bat eskatzeko, adibidez; era berean, ez dakigu aukeratzen ez dutenei beste ikasgai bat ezarriko ote zaien zigortzat. Ildo honetan, aurreproiektuak ez du antolakuntza neurri zehatzik eskaintzen inoren eskubideak kaltetu ez daitezzen.

Araudiaren arazoa

Autonomi Erkidegoek hezkuntzari dagokionean izan behar duten eskumenaren alde esandakoak eta Erkidegoen eta Hezkuntza eta Zientzi Ministerioaren arteko lankidetzaren aldeko adierazpenak kolokan daude Estatuko Goi Ikuskaritzari emandako funtzioengatik, hots, hezkuntza sistema ezberdinen ebaluazioa eta derrigorrezko izaera duten txostenen prestaketa. LOE delakoa lege zentralista da oraindik orain,

helburutzat lurraldeen arteko harmonizazioa (homogenotasuna?) duena eta guk nahi dugun eta behar dugun hezkuntza sistema eratzeko eskubidearen gainetik jartzen dena. STEE-EILASen iritziz gutxienez zalantzarria da era honetako lege organikoak egotea hezkuntzaren arloan, zeinetan autonomietako administrazioek – zehazki EAEkoak eta Nafarroakoak- eskuduntza guztiak dituzten.

Alde positiboak

LOCE geldiarazteaz gain, LOEk lege bakar batean batuko ditu Estatuko hezkuntza arloa arautzen duten hiru legeak (LOGSE, LOPEG eta LOCE), eta horrek argi pixka bat ekarriko dio gaur egungo egoera konplexuari. Gogoan izan behar da, EAEn berezko araudia dugula arlo honetan. Beste neurri batzuk ere positiboak dira, esaterako,

Haur Hezkuntzako lehen zikloaren izaera hezitzailearen itzulera, DBHko lehen hiru mailatan iraileko azterketak kentzea, “ebaluazio kolegiatua” berrezartzea, ibilbideak ezabatzea, errebalida ez ezartzea, aniztasunaren trataera maila guztietara hedatzea edo DBHko lehen zikloan ikasgaiak murriztea...

Baina... zer gertatzen da irakaskuntza publikoarekin?

Aurkeztu duten agirian ez da inolako konpromiso argirik ageri irakaskuntza publikoaren defentsa eta sustapenaren alde, PSOEk bere hauteskunde programan eta eztabaidaren aurkezpenean adierazi zuenaren aurka. Antolaketan hutsunerik dagoela onartu ordez, ikastetxe publiko eta kontzertatuak maila berean jartzen dira, horretarako “ondasun publikoek

mantendutako ikastetxeak” amarru eufemistikoa erabiliz eta errealitate ezberdinak direla isilduz. Ez da bakarrik kontzertuaren gaitasuna beste zenbait mailatara hedatzen duela (IIetako 2.zikloa), baizik eta irakaskuntza ez-derrigorrezko eta “bereziak” ere kontzertuaren barne hartzen dituela. Gaurko iruzur-egoera indartzen du, osagarriko jarduerengatik eta eskolaz

kanpokoengatik sendiei kuotak ezartzen jarraitzearen alde egiten baitu, horrela aukera berdintasunaren kontra eginez. Irakaskuntza sistemaren pribatizazioaren aldeko jarrera indartzen du, enpresei eta elkartei atea irekiz (adibidez,

Kualifikazio Profesionalerako Programak burutzerakoan). Ikastetxe publikoak kanpotik finantzatzeko aukera ere ematen du, eta honek batzuen eta besteen arteko aldeak areagotuko ditu.

Finantziazioaren gaineko zalantzak

PSOEk *guztiontzat* (gizonezkoentzat eta espero dugu andrazkoentzat ere) nahi duen hezkuntzaren kalitateak ez du islapenik arautzen diren neurri zehatzetan: ikasleriaren aniztasunaren trataeraz eta heziketa behar bereziaz etengabe mintzatzen dira, baina ratioek lehengoak izaten jarraitzen dute, hau da, 25 ikasle/gela lehen hezkuntzarako eta 30 bigarren hezkuntzarako. Praktikan ezinezko egiten ditu prebentzio lana eta banakako

irakaskuntza. Ikastetxeetarako giza baliabide eta material gehiago eta aurrekontu handiagoak behin eta berriro agindu badituzte ere, ez dute agindutakoa gorpuzten duen finantziario legerik aurkeztu, edozein aldaketa burutzeko ezinbestekoa dena eta aurreproiektuari itsatsi ez zaiona. Horrela, ezinezko gertatzen da proposatutako neurriak benetan bideragarri diren baloratzea.

Eskola porrotaren erronka

Adierazpen potoloetatik haratago joango diren konpromiso eta proposamen zehatzak behar dira esparru honetan. Lehen hezkuntzako laugarren mailan eta DBHko bigarrenean egiten diren diagnostikoaren ebaluazioek ez dute irtenbide egokirik eskaintzen, ez bada ikasleriaren lehia eta

estresa edo ikastetxeen arteko alderaketa eta ondorengo kategorizazioa. Laugarren mailari ematen zaion trataera ezberdinak, DBHren izaera bateratzailea apurtzea dakar eta ikasleen ezkutuko bereizketa burutzea gero egin ditzaketen aukeren arabera.

Hezkuntzako profesionalak

Esker oneko berbez gain, lan baldintzen benetako hobekuntza beharrezkoa da ikasleria eta ikastetxeetako beste profesionalak erronka ezberdinei aurre egitera motibatuzko, legea ez baita nahikoa. Alor honetan ere, aspalditik datozen oinarrizko arazoak oraindik konpondu barik daude. Horrela, aurreproiektuan ez dira ondorengo gaiak aztertzen: ez irakasle interinoren hezkuntza funtziorako sarrera espezifikoa ezta lan prekarietatea murrizteko neurriak ere; 60 urterekin borondatez jubilatze eskubidea 2010.

urtera arte bakarrik luzatzen da eta oraindik ez dira berdindu klase pasiboen sistema eta gizarte segurantzak; lan-orduen murrizpena zegoen bezala geratu da; irakasleriari zuzendutako kanpo-ebaluazioa aitzakia bat baino ez da kategoriak banatzeko, ezberdintasunak eraginez maila ekonomikoan, barne promozioari dagokionean eta lekualdatze lehiaketetarako puntuazioari dagokionean. Geroz eta urrunago gaude talde bakarraren eta soldata berdintasunaren helburuetatik. Ikastetxe pribatuetako langileriaren lan baldintzen

homologazioari (eskola orduak, prestakuntza, kudeaketan parte hartzeko eskubidea...) ere ez zaio aipamenik egiten,

jaramon, jaramon egin diote, ordea, patronalak zuzendaritza funtzioa aintzat hartzeaz egin duen eskaerari.

Irakaskuntza pribatua

Ikastetxe pribatuekin egin diren kontzertuen gastuen kontrolari dagokionean, epel jokatzeko jarraitzen dute. Aurreproiektu honek ez du ezertan aldatzen egungo egoera eta ez betetzeak (ezagun-ezagunak eta errepikatuak) egonez gero, zigorrak aurreikusten ditu, baina kontzertuak haustea ia ezinezko egiten du. Ikastetxe pribatu kontzertatuetan (baita publikoetan ere) ikasleak onartzeko sistemen inguruan

egindako aurrerabide txikiak, batez ere eskaintzaren zonifikazioari eta behar bereziak dituzten ikasleen banaketari (epe kanpo izena ematen duten etorkinak barne) eragiten diotenak, kolokan daude ikastetxe pribatuei ohiz kanpoko diru-laguntzak eskaintzen zaizkienean kontzertuak berak behartutako giza betebeharrak betetzeko oniritzia ematen badute.

Kudeaketaz

Eskaintzen den sistemak ikastetxe publikoak bakarrik behartzen ditu, eta LOCEren nahiei, ñabardurak ñabardura, jarraipena ematen die. Nahiz eta elkartegintza eta eskola-bizitzan parte hartzea bultzatzeko borondatea adierazi, zuzendariaren hautaketa demokratikoa desagertu egingo da, administrazioak zeresan handia izaten jarraitzen duen aukeraketa sistema babestuz. Benetako barne-demokraziatik eta ikastetxeen kudeaketan eskola-komunitatearen

benetako parte hartetik aldentzen ari gara. Lanbide heziketako ikastetxe integratuetan, PSOE bera aurka izan zuen eta baztertuta dagoen *Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Legea* erabiltzen jarraitzen dute. Berrikuntza aipagarri bakarra, eta espero dezagun itxurak bakarrik ez izatea, Eskola Kontseiluetan genero berdintasuna sustatzeko ardura izango duen norbait izendatzea da. Aitzitik, aurreproiektua idazteko erabilitako hizkerak sexista izaten darrai.

Laburtuz, beraz, argi gutxi eta itzal asko. Gure iritziz, nahitaezkoa da Parlamentuko eztabaidak Hezkuntzaren Lege Organikoaren (LOE gaztelaniaz) aurreproiektuaren edukia sakonki aldatzea. Hauexek dira edozein hezkuntza erreformaren ardatzak: irakaskuntza publikoaren aldeko benetako konpromisoa, hezkuntza sistema parte hartzaile eta demokratikoaren bilaketa, eta ezberdintasunak berdinduko dituen eta giza-kohesioa bermatuko duen hezkuntza laiko eta integratzailearen ezarketa. Erreforma honek, nahitaez, errespetuz jokatu beharko du dauden arauemaile ezberdinekiko. Konpromiso hori hartu behar dute agente politiko, sozial eta hezkuntzako guztiek. STEE-EILASek, behinik behin, aspaldi onartu zuen erronka hori eta horregatik uste du aurreproiektu hau erabat frustrantea, gutxiegiakoa eta derrigor hobetu beharrekoa dela.

HEZKUNTZAREN LEGE ORGANIKORAKO (LOE) GIDA

Bigarren hezkuntzako curriculum guztietan **oinarrizko gaitasunak** kontzeptua gehitu da zera adierazteko: eremu batzuk, zeintzuek irakasle eta ikastetxeei ahalegin handienak behar dituzten arloei buruzko erreferentziak ematen dizkieten. Curriculumaren oinarrizko aldeek, hizkuntza ofizial bat baino gehiago dituzten Autonomi Erkidegoetan, eskola orduen %55 bete ditzakete.

HEZKUNTZA MAILAK

HAUR HEZKUNTZA

- Borondatezko etapa.
- Haur Hezkuntzaren izaera hezgarria.
- Bi ziklotan banatua: 0-3 eta 3-6. Bigarren zikloa doakoa izango da eta kontzertatua izan ahalko da.
- 0-3 ziklorako pedagogi proposamen zehatza, Haur Hezkuntzako maisu-maistrek burutu eta kontrolatua.
- Bigarren ziklorako plangintza orokortu eta ulerkorra.
- Idazmen eta irakurketara, zenbaki gaitasunera, atzerriko hizkuntzara eta IKTetara hurreratu.
- Ikastetxeek bi zikloak, bat, edo 0-3 zikloko zati bat eskaini ditzakete.
- Beste zenbait herri administrazio eta erakunderen laguntzarekin lehen zikloan geroz eta ikaspostu gehiago sortzeko konpromisoa.
- Irakasleria: maisu-maistrak (pedagogi arduradunak) eta beste kualifikatu batzuk lehen zikloan, maisu-maistrak bigarreanean.

LEHEN HEZKUNTZA

- Bi mailako hiru ziklotan banatua eta izaera orokor eta integratzailea duten arlo batzuekin.
- Ratioa: 25 gelako.
- Hirugarren zikloan Hirigintzarako Heziketa gehitzen da.
- Bigarren zikloaren amaieran ikaslearen oinarrizko gaitasunen diagnostiko-ebaluazioa egingo da, hezteko eta orientatzeko balioko duena. Bainera begira egingo da, baina irizpide bateratuak izango ditu (Ebaluazioa Institutua).
- Ebaluazio jarraia eta batez bestekoa.
- Etapa guztian behin bakarrik errepikatzeko aukera, plangintza zehatza eginez.
- Irakasleria: zehaztear dauden espezialitateetan izan ezik, maisu-maistrek izango dute arlo guztien eta tutoretzen ardura.

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

- Lehenengo eta bigarren mailetan, ikasleak askoz jota seigarren mailan baino bi ikasgai gehiago izango ditu.
- Ratioa: 30 gelako
- Antolaketa malgua: bikoizketak, curriculumaren egokitzapenak, aukerakoak, indartzeko eta banakako jarraipenerako programak. Ikastetxeak duen ikasleriaren araberako antolamendu autonomia.
- Curriculumaren eta antolamenduaren aldetik lehen hiru mailak eta laugarrenaren arteko ezberdintasuna, laugarrena heziketa eta lanbide orientaziora bideratuko baita.
- Teknologia eta informatika prozesuak: antolamendu orokorra edo teknologia edo informatikan banatua.
- Irakasleak, hala nahi izanez gero, ikasgai bat baino gehiago erakutsi ahal izango dio lehen bi mailetako talde berari.
- Ikasleak, kurtsoz pasatuko bada, bi ikasgai izan ditzake suspendituta, eta ez lau edo gehiago.
- Ikasleak behin bakarrik errepika dezake ikasmaila eta birritan, gehienez ere, etapa guztian. Indartze programak.
- Laugarren mailako ikasleak ohiz kanpoko azterketa bat egin dezake gairitu gabeko ikasgaiak gairitzeko.
- Bigarren mailaren bukaeran, ikaslearen oinarritzko gaitasunen diagnostiko-ebaluazioa egingo da, hezteko eta orientatzeko balioko duena. Barnera begira egingo da, baina irizpide bateratuak izango ditu (Ebaluazio Institutua).
- Ebaluazio jarraia eta promozioaz erabaki kolegiatua.
- Hirigintzarako Heziketa ikasgaia gehituko da lehen hiru mailetako baten eta laugarren mailan.
- Irakasleria: heziketa didaktikoa (graduatu ondokoa) duten lizentziatuak. Gaur egun lehen zikloan dauden behinbetiko maisu-maistrek eperik gabe jarrai dezakete bertan, maila horretan bertan edo lehen ziklora edo haur-hezkuntzara mugitu, edo bertikalki promozionatu bigarren hezkuntzako kidegora bere destinoa mantenduz.
- Graduatu titulua edo eskolatze agiria.

Ezberdintze kurrikularreko programak

- DBHko hirugarren mailatik edo lehen zikloko ikasmaila bat errepikatu eta hirugarrenera pasa ezin direnean. Graduatua eskuratzera bideratua.

Oinarritzko lanbide gaitasunerako programak

- DBHko Graduatu titulua ez duten 16 urte baino zaharragoak eta 21 baino gazteagoak.
- Hiru motatako moduluak: bereziak, orokorrak eta borondatezkoak (azkenek bakarrik eskaintzen dute Graduatu titulua).
- Eskaintza ikastetxe publiko eta kontzertatuetan.
- Ikastetxe, udal, lan-elkarte, GKE, enpresa erakunde eta sindikatuek parte har dezakete.

BATXILERGOA

- Hiru modalitate: artea, zientzia eta teknologia eta humanitateak eta gizarte zientziak.
- Gehienez lau urte bi ikasmaitarako.

- Ratioa: 30 gelako.
- Antolaketa arazoak medio, modalitateen eskaintza mugatua ikastetxe batean: ikasgairen bat beste ikastetxe batzuetan edo urrunetik.
- Ikasgai orokor bezala sortu dira Hirigintzarako Heziketa eta Historia Garaikiderako Zientziak.
- Ikaslea ikasmailaz igaro daiteke bi ikasgai gainditu gabe izanik.
- Ebaluazioa: irakasle bakoitzak du erabakia.
- Ikasleak gainditu gabeko ikasgaien ezohiko azterketa egin ahal izango du.
- Bi ikasmailak gaindituz gero, Batxiler titulua lortuko da.
- Batxilergo eta Erdi Mailako Heziketa Zikloen arteko elkar onarpena.
- Irakasleria: Heziketa didaktikoa (graduatu ondokoa) duten lizentziatuak.

USF (Unibertsitateko Sarrera Froga)

- Froga homologatu bakarra, batxilergoko kalifikazioekin batera.
- Unibertsitate eta batxilergoko ikastetxeen arteko koordinazioa.

LANBIDE HEZIKETA

- *Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren 5/2002 Legea* .
- Sarrera: DBHko graduatua erdi mailako zikloetarako eta batxilergoa goi mailakoetarako. Sarrera frogak (18 eta 19 urte gutxienez) eta balizko zatikako baliozkotzeak Lanbide Kualifikazio Programengatik edo lan esperientziagatik. Frogak prestatzeko ikastaroak, notak kontuan izanda.
- Unibertsitate mailako eta goi mailako LHko ikasketen arteko baliozkotzearen etorkizuneko araudia.
- Irakasleria: heziketa didaktikoa (graduatu ondokoa) duten lizentziatuak. Lan arloko irakasle espezialistak kontratatzeko aukera (ikastetxe publikoak: behin-behineko administrazio-kontratua).

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA

- Gutxienezko adina: 16 urte.
- Erdi mailarako sarrera Batxilergoko tituluaz (eskolan ikasitako lehen atzerriko hizkuntzan).
- Bigarren hezkuntzan eta LHn ikasitakoak egiaztatzeko froga homologatuak.
- Irakasleria: heziketa didaktikoa (graduatu ondokoa) duten lizentziatuak. Zenbait modulutarako beste titulazio batzuen aukera.
- Irakasleria: heziketa didaktikoa (graduatu ondokoa) duten lizentziatuak. Atzerriko irakasleei behin-behineko edo behin-betiko kontratuak (lan zuzenbidea) egiteko aukera.

HELDUEN HEZKUNTZA

- 18 urtetik gorakoak.
- Hezkuntza administrazioaren kolaborazioa beste herri administrazio batzuekin (batez ere lan arlokoa) eta giza erakundeekin. Unibertsitate, udaletxe eta beste erakunde publiko eta pribatuekin elkarlaguntzarako hitzarmenak.
- Lan edo gizarte esperientziaren bidez eskuratutako ikasketen balioztapena.
- Azterketa libreak: 18 urtetik gorakoentzat DBHko graduatua, 21 urtetik gorakoentzat Batxiler edo LH titulua, 25 urtetik gorakoentzat unibertsitaterako sarrera frogak.
- Irakasleria: ikasketa bakoitzari dagokiona.

BERARIAZKO GAIAK

Erliijoaren irakaskuntza

- Erliijo katolikoa: ikastetxeentzat derrigor eskaini beharrekoa eta ikasleentzat aukerakoa. Beste erlijiok, ikasleentzat bakarrik aukerakoak eta adosteko dauden akordioen arabera.
- Irakasleria: ikasturte baterako lan kontratupean, lanordu oso edo murriztuarekin eta gainerako interinoen ordainsari berarekin.

Heziketa behar bereziak

- Normalizazio eta barneratze abiaburu orokorrak.
- Beharrezko giza baliabide eta materialen bermea. Irizpide berberak ikastetxe publiko eta kontzertatuentzat.
- Nola jokatu erabakiko duten irakasle eta profesional kualifikatuek osatutako taldeek egingo dute detektatze eta balorapen goiztiarra. Eraitzen urteroko ebaluazioa.
- Adimen gaitasun handikoentzat maila eta etapen malgutasuna.
- Ikasketa sisteman berandu barneratzea: batez ere derrigorrezko etapetan. Adinaren gainetik, egoera, ezagutzak eta ikasketen historiala kontuan izanez.
- Hizkuntza, ahalmen edo oinarrizko ezagutzen mailako gaitasun eza dutenentzat programa bereziak. Talde arruntetan eskolaratzearekin batera egingo dira.
- Haur Hezkuntzan jokaera konpentsatzaile eta aurrezaintzekoa.
- Hezkuntza alorreko esku hartze konpentsatzailea behar duten ikastetxe eta inguruetan neurri bereziak.
- Lehen hezkuntza: herrian bertan doako ikaspostu bat izateko bermea (nekazaritza guneetan: garraioa, jangela edota barnetegia doan).

Ikasleriaren onarpena

- Doako ikaspostuen programazioa, heziketa neurri bereziak behar dituzten ikasleak modu orekatuan banatuz ikastetxe publiko eta kontzertatuen artean.
- Irizpideak: anai-arrebak, bizilekuarekiko hurbiltasuna, famili-errenta, ezgaitasunak. Berdin-berdinak ikastetxe publiko eta kontzertatuentzat.
- Elkarri atxikitako maila ezberdineko ikastetxeak ikastetxe bakartzat jotzea.
- Derrigorrezkoa ez den irakaskuntzan irizpidea ikasketa espedientea izango da.
- Ikastetxe publiko eta kontzertatuentzat zonakatze bakarra.
- Onarpena bermatzeko batzordeak.
- Heziketa neurri bereziak behar dituzten ikasleen onarpenerako portzentaien ezarpena ikastetxe publiko eta kontzertatuetan.
- Ikaspostuen kopuru bat gordeko da ikastetxe publiko eta kontzertatuetara berandu datozenentzat.
- Ikastetxe publiko eta kontzertatuetan onartutako ikasle guztiak eskolaratuta mantentzeko beharra (araudiaren araberako salbuespenak izan ezik).

IRAKASLERIA

- Legezko babes eta laguntzaren bermea eta lan jardueraren ondoriozko erantzukizun zibilaren gaineko babesa.
- Tutoretzako betebeharrak lan baldintza eta ekonomi arloko laguntza izango dute.
- Ikastetxeari emandako dedikazio bereziak eta heziketa berrikuntza planak ezartzeak lan baldintza eta ekonomi arloko laguntza izango dute.
- Borondatezko ebaluazioa ondorio profesionalekin (irakasle karrera eta lekualdatzeak).
- Katedratikoen kidegoaren eta bere abantailen jarraipena.
- Ikastetxe elebidunen irakasleria aintzakotzat hartzea.
- Prestakuntza, ikerketa eta heziketa berrikuntzarako baimen ordainduak.
- 55 urtetik gorakoen lanorduen murrizpena bultzatuko da soldataren gutxitzearekin eta eskola orduen zatikako aldaketa egingo da beste jarduera baten truke.
- 2010eko urriaren 4a arte luzatzen da aurretiatzko jubilazioa. Eskaera egiteko baldintzak dira: 1990eko urtarrilaren 1etik lanean jardutea, 60 urte eginak izatea eta estatuarentzat 15 urtez gutxienez zerbitzuan jardun izana.

Klase Pasiboen Erregimenaren menpe dauden funtzionarioek jubilaziorako metatutako urteak egiaztatzeko, zerbitzuan egindako urteei jubilatzeko unean 65 betetzeko falta zaizkienak gehituko dizkiete. Era berean, 28 urteko zerbitzuarekin ezohiko ordainsari bat jasoko dute, inolaz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren 25 hileroko baino handiagoa izango ez dena.

Gizarte Segurantzako Erregimenera atxikitutako funtzionarioak, prestazioei dagokienean, harrera erregimenaren araberako araudiak ezarritakoa beteko dute. Hauek ere, 28 urteko zerbitzuarekin, ezohiko ordainsari bat jasoko dute, inolaz ere lanbide arteko gutxieneko soldataren 50 hileroko baino handiagoa izango ez dena.

- Oinarri hauek ezartzen dira irakaskuntzako funtzio publikoaren estatutu-araubiderako eta Autonomi Erkidegoetarako: irakasle kidegoetan sarrera eta batetik besterako mugikortasuna, kidego eta mailen birrantolaketa eta estatu mailako lekualdatze lehiaketa.
- Zuzendaritza lanen errekonozimendua, behin kargua utzi eta jardunean dagoen artean, dagokion soldata osagarriaren zati bat jasoz.
- Irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko sistema oposizioak izango dira, bi aldirekin: prestakuntza eta irakasle esperientzia baloratuko diren lehiaketa aldi bat eta beste oposizio aldi bat non irakasten den espezialitateko ezagutza bereziak, irakasteko gaitasuna eta irakasteko tekniken ezagutza neurtuko diren.
- Hasierako prestakuntza: ikasketa bakoitzari dagokion titulazio eta prestakuntza didaktikoa. Europako gradu eta graduatu ondoko sistemari egokituko zaio. Lehen ikasturtea baimendutako praktiketakoa izango da.
- Etengabeko prestakuntza: irakasleriaren eskubide eta betebeharra eta administrazio eta ikastetxeen ardura. IKT eta hizkuntzak irakasleria guztiarentzat. Hezkuntza eta Zientzi Ministerioak eskainitako Estatu mailako programen aukera.

IKASTETXEAK

Hezkuntza eskaintza

- LODEk definitutako hezkuntza-sarea sendotuko da, honako honetan oinarritzen dena:
Ikastetxe publikoak, herri administrazio bat titulartzat dutenak.
Ikastetxe kontzertatuak, kontzertuen erregimenean sartutako ikastetxe pribatuak.
Ikastetxe pribatuak.
- Ikastetxe publiko eta kontzertatuetan oinarritutako hezkuntza-eskaintza.
- Ezohiko baliabideak behar berezidun ikasleak eskolaratzen dituzten ikastetxe publiko eta kontzertatuentzat, araudi orokorraren edo inguruaren arabera dagokiena baino proportzio handiagoan egiten dutenean.
- Osagarritzko zerbitzuak eskaintzeko aukera.

Hezkuntza itunak (kontzertuak) ikastetxe pribatuekin

- Kontzertuak: lehentasuna dute eskolaratze beharrak betetzen laguntzen dutenak, egoera sozioekonomiko txarrean dauden herrietan dihardutenak edo pedagogiaren aldetik interesa duten esperientziak egiten dituztenak.
- Ikastetxe kontzertatuentzat debekuak: irakasteagatik kuotak ezartzea, derrigorrezko elkarteak edo derrigorrezko zerbitzu elkartuak (eskolaz kanpoko jarduerak eta osagarriak salbu).
- Kontzertuaren modulua: soldatak (ordainketa delegatua), irakasleen antzintasuna eta gizarte segurantzaren, administrazio eta zerbitzuak, mantenua, inbertsioen birjardua, irakaskuntzarekin batera edo ez burutzen den zuzendaritza funtzioa. Ikastetxe publikoetako irakasleriaren soldatekin mailaz mailako berdinketa.
- Ez betetzeagatik hutsegite arinak, larriak eta oso larriak ezartzen dira, baita bakoitzari dagozkion zigorrak ere.

Parte hartzea, autonomia eta ikastetxeen gobernua

- Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak kanpo geratzen dira, *Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren 5/2002 Legeak* arautzen baititu.
- Eskola Kontseilua, klaustroa eta zuzendaritza batzordea dira gobernu organo kolegiatuak. Honekin batera dator bere eskuduntzen aldaketa, LOCEren aldean hobera eginez.
- Eskola Kontseiluak onartutako eta tokian tokiko giza eta kultur mailako ezaugarri jarraiki burututako Heziketa Proiektuak ondokoak jasoko ditu: baloreak eta beraien zehar lerroen bidezko trataera, helburuak, curriculumaren zehaztapena eta lehenetsuneko jokoerak, aniztasunaren trataera, elkarbizitzako plangintza eta familiekiko pedagogi-konpromisoak.
- Ikastetxearen Curriculum Proiektua desagertu egingo da.
- Kudeaketa Proiektua, ekonomi-autonomiaren aitzakiarekin, eskola enpresa bihurtzeko bidean lehen urratsa da, kalitate planak eta enpresa-kudeaketako hizkuntza erabiliz, horrela, pribatizazioaren ikuspegitik antolaketa eta funtzionamendurako oinarriko irizpideak sartzen joateko.
- Eskola Kontseiluan norbait izendatuko da gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunaren aldeko hezkuntza-neurriak suspertzeko.
- Heziketa Bereziko unitateak dituzten ikastetxeetan osagarriko hezkuntzaren arretarako langileen ordezkari batek ere parte hartuko du.
- LH, Arte Plastikoak eta Diseinuzkoetan enpresa edo lan arloko ordezkari bat gehi diezaioke Eskola Kontseiluari.
- Ikasleek DBHko lehen mailatik parte har dezakete, baina DBHko lehen zikloko ikasleek ezin dute zuzendariaren aukeraketa edo kargugabetzean parte izan.
- Zuzendaria aukeratzeko Batzordea osatzen duten kideen osaketa aldatuko da, honela geratuz: Klaustrotik heren bat, Eskola Kontseilutik (ez irakasleak) heren bat eta Administrazioetik beste heren bat.
- Zuzendarien hautaketa egiteko lehenengo ikastetxeko hautagaiak izango dira kontuan, eta gero beste ikastetxe batzuetakoak.

BESTELAKOAK

- Legea bost urtez egongo da indarrean.
- Ez dago argi Erljioari alternatibarik eskainiko zaion.
- Legea aurrera eramateko beharko diren ekonomi baliabideak aipatzen dira, baina ez da ekonomiazko txostenik atxikitzen, ezta finantzaketa proiekturik ere.
- Ratioak 25 eta 30 dira oraindik orain.
- Derrigorrezko hezkuntzako eskola egutegia 175 egunekoa da.
- Kontzertuen ez betetzeaz LODEko 62 artikulua dioena aldatu da.